

Juan Kruz Mendizabalek Donostiako San Bizente parrokian apaiz eta Xirimiri Gazte Taldeko Arduradun zela egindako abusuen biktima bezala, honakoa adierazi nahiko genuke:

1. Juan Kruz Mendizabalek eragindako beste kasu baten zurrumurruen aurrean, gertatutakoa publiko egiteko momentua dela pentsatu dugu, denbora luze batez diskrezioa mantendu ostean. Zurrumurru hauek aurreko egoera aldatzen duen eszenatoki bat irekitzen dute.
2. 2016eko martxoan Donostiako Gotzaiaren aurrera joan ginen eta 2001 eta 2005 urteetan gertatutako abusu batzuen berri eman genion, gure bizitza markatu zutenak. Argi utzi nahi dugu Gotzaiak eta elizak egoki hartuta sentitu ginela eta honek hasieratik ahokatu zigula bide zibilera jotzea beste bide bat ere bazegoela adieraziz, denuntzia kanonikoa. Gurea kasu isolatu bat izan zitekeela pentsatuz, eta gauzak ahalik eta diskretuen eramateko asmoz, geure borondatez bide kanonikoa hautatu genuen. Azkenik, sententzia bat ezarri zuen elizak, apaiza errudun topatzen zuena eta honek zigor bat ekarri zion berarekin.
3. Baina oraingo momentuan, geuregana beste kasu posible baten egoera iritsi denean, gertatutakoaren berri emateko garaia iritsi dela iruditu zaigu, egi erdiak ez esateko eta batez ere, ezkutuan dauden biktima posibleak argitara atera daitezzen. Guri asko lagundu digu gertatutakoa denuntziateak eta uste dugu besteei ere lagunduko diela.
4. Gure intimitatearekiko errespetua eskatzen dugu, ez baitugu uste ekintza hauek gure bizitza egin dutena baina gehiago baldintzatu behar dutenik.